

# Hizkuntz plangintza instituzionala: Israelgo kasua\*

Scott B. Saulson

## SARRERA

Hizkuntz plangintza ez dugu bakarrik gauza posibletzat jo behar. Prozesuan ematen den zuzendaritza edo gidabidea behar-beharrezkoa da, eta badirudi alor instituzionala dela plangintzari nahitaez behar duen arrazionaltasuna eranstean diona.

Hizkuntzaren nolabaiteko aldaketaz ari garenez, aldaketa honek bi bereizgarri ditu: alde batetik, aldaketarekiko *erabakiak* problemen azterketa zehatzaren ondorio izan behar dutela eta, bestetik, argi azaltzen zaigu, denborari dagokionean, plangintzak gerorantz zuzenbidetu beharra.

Nolanahi ere, aztertuko dugun problema ez dago plangintzaren egokitasun edo posibilitatean, baizik eta, aurrez ezarririko arrakasta-erizpideei jarraituz, benetan nola planifikatzean (Fishman, 1974, 26. or.). Hau aipatzean, ideal batzu (ekonomikoak, estetikoak, etab.) segitu nahiak bidezkoa ematen du, baina kontutan hartu behar dugu hizkuntzarekiko problemei irtenbidea emateko efektibitatea garrantzi haundikoa dela, hau da, arazoa idealista baino gehiago pragmatikoa

dela, edo gutxienez ideal absolutoak nola edo hala erlatibizatu egin behar direla.

Egitura teorikoen garrantzia ere aipatu beharra dago. Horretarako begirada bat bota geniezaioke Jernoudd eta Das Gupta-ren «Hedaketa Modelo»ari (Jernudd & Das Gupta, 1971). Honek deskribatzen digu denboraren luzeran ematen den sekuentzia, A-n hasi eta E-raino.

- A.— Problemaren sumaketa.
- B.— Erabakihartzaileen azterketa.
- C.— Erabaki alternatiboak hartu.
- D.— Jendearen erabilera edo erreakzioa
- E.— Lortu diren xedeak.

Modeloari jarraituz, plangileek D-n eragin efektiboa duten C-ak behar dituzte. Auresanek ahalik eta zehatzek izan beharko dute efektuak nahiko argi izan daitezen, eta xedeak lortzeko erizpide eta teknikak zehatzak izatea premiazkoa izango da E-n.

Analisi honek bi komunitate hartzen ditu kontutan: (1) Hizkuntza erabiltzen dutenen komunitatea (edo komunitate jenerala, edo komunitatea jeneralean), eta (2) Plangileen komunitate

(\*) Scott B. SAULSON-en «Institutionalized language planning. Documents and analysis of the revival of hebrew» (The Hague, Mouton, 1979) liburuaren «Conclusion» (161-197 orr.) izeneko kapitulua, laburtua eta euskaratua. Beraien baimenez argitaratua.

tea. Bietan hizkuntzarekiko filosofia, konposaketa sozio-linguistikoa eta plangintzak aurkitzen dituen eragozpenak aztertuko ditugu. Azkenik (3), bi komunitateen arteko harremanak eta politika linguistikoaren arloan duen eragina miatuko dugu.

### (1) HIZKUNTZA DARABILTENEN KOMUNITATEA

Honen baitan ematen den jokabidea eta ideologia pisu handikoak dira hizkuntzaren aurrerabiderako behar den giroa finkatzerakoan. Hebraieraren berpizkundeak zera erakutsi du: biztanleen gehiengoa hizkuntza bati atxekita baldin badago, plangintzaren aurreneko eginbeharra, hots, hebraieraren kasuan hizkuntz mota aukeratzea, sobera errazten dela.

Bestaldetik, hizkuntzaren baitan aldaketa nabaria izan da: «Lehen baloreak (sinesmenak) nagusi ziren lekutan... orain funtzioa (behar pribatuak) gailentzen da». (Hoffman & Fisherman, 205 or.). Honelako aldaketak berebiziko tresnak bihur daitezke hizkuntz plangintzaren arrakasta auresateko, edota behintzat, une bakoitzean zein hizkuntz mota bultzatu behar den adierazteko (hots, gobernuak aholkatuturiko hizkuntza idatzia ala etxeko hizkuntza intimoagoa).

Emigrazioak (lehenengoa XIX mendearen amaieran eta bigarrena 1905etik 1915era batez ere) eragin handia izan du herri honetan. Hau dela eta, besteak beste, literaturaren ezaguera bultzatzen duten programak nahiko laburrak dira. Askoz inportanteagotzat jotzen du emigranteak hizkuntza erabiltzea, eta ondorio gisa esan daiteke, bultzada handiagoa eman zaiela komunikazio «ulergarri»ei, ortografia, gramatika edo estiloari baino.

Baina emigrazioa osagai xehe eta txiroa den komunitateetan ere aurkitzen

dira diferentziak, hebraiera jatorra zein den erabakitzerakoan. Honelako gizaratean, hizkuntza bultzatzeko behar diren giroei buruz adostasunik ez dagoenean, komunikabideek dute eginkizunik inportanteena.

Diferentzia hauei buruzko ikerketak ugalduta azkenaldi honetan, baina ez dira iristen komunitatearen hizkuntz produktuarekiko onarpena gehituko luketen elementuak isolatzera. Miaketok ez digute laguntzen hizkuntz plangintzaren prozesuan ematen diren aldakiak hobeto ulertzen. Eta hau honela izango da, ikerketek diferentzien arrazoiak adierazi beharrean diferentzia hauek aipatzea besterik egiten ez duten bitartean.

Oro har, badirudi komunitatean bizi den bakoitzaren baitan gertatzen dela nolabaiteko dikotomia. Honek argituko lituzke ezagunak diren ondoko kontraesanak, hots:

— Komunitatea maiz aski Akademia baino garbizaleagoa dela (Kornbluth & Aynor, 1974, 44. or.)

— Belaunaldi zaharregian ideologiak garrantzi handia duela, hebraiera askorik erabiltzen ez badute ere, eta gazteek, berriz, hain ideologizatuak ez izan arren, hebraieraz mintzatzen direla ia soilik (Alloni & Foinberg, 1974, 508. or.).

Hebraiera Akademiak gutxiagotu du orain arte ikusi ditugun oztopen eragina zenbait moldaketa eginik, komunitatearen barnean ziren talde adierazkorrek kontutan hartuz eta haien laguntza eskatuz. Moldaketa hau prozesu luzea izan da, eta neologismoek dakartzaten problemak agertu dira.

Azkenik, esan genezake eragozpenik gehien aurka plangileek ezer gutxi egin dezaketela, sarritan gertaera historiko-politikoek gidatzen bait dute prozesua. Faktore sozio-ekonomikoek ere izugarritzko zerikusia izan dute: Israelen hazkuntza nazionala eta arazo politiko eta ekonomikorik handienak batera bertatu dira, eta batean eraldi beharreko denbora eta dirua bestera joan dira zoritxarrez.

(2) PLANGILEEN  
KOMUNITATEA

Plangileen helburu estrukturalak, eta baita Akademiaren ere, erro sakonak dituzte. Hauen aurrekoentzat hizkuntzak hebraiera ideala isladatu behar zuen, eta hebraiera ideal hau hebraiera biblikoa zen.

Baina gaurreguneko hizkuntz plangileek ezin diote uko egin gero eta beharrezkoagoa den modernizazioari. Beraz, jatortasunak sentimentalismoaren bidetik garamatzen bitartean, modernizazioak uniformitate instrumentala azpimarratzen du.

Sentimentalismo / Instrumentalismo dikotomia honetan dago gakoa: norantz jo? Teorian bederen, nolabaiteko armonizaketa eman daiteke, nolabaiteko konpromezua. Horretarako kontuan izan behar dugu, hizkuntza medio izateaz gain, kode eta instituzio soziala ere badela (Tauli, 1974, 49. or.), eta armonizaketa honek ez duela izan behar bietako bat besteaz nagusitzea. Zeren gerta bait daiteke komunitatekideak hizkuntza garbi eta praktikoa nahi izatea, hizkuntza *berea* izan dadila nahi izatea, beren nortasunaren islada edo.

Akademiak ere izan zuen instrumentalismoaren zartada, 1942.ean esaten zuenean hizkuntzak «Iturburu gramatikari jarraitu behar ziola, baina baita gaur eguneko beharrak kontutan hartu ere; eta batez ere publikoarentzat onargarri» izan behar zuela (Rabin, 1971a, 105. or.). Urtetan zehar denetatik pixka bat izan da eta, oraingo plangileen eritziz, *judu hezkuntzaren helburuak* honako hauek dira:

- a) Haurrak beren pentsakera aberasten duten kontzeptuez hornitu.
- b) Mintzatu eta idaztean ikas dezatela hizkuntza garbi eta atsegin ez baliatzen.
- c) Garai guztietako kultura orokor eta *nazionala* ezagutu eta prezia dezatela.
- d) Haurren estetika lantzea eta hebraieraren iturburuak eta litera-

tura jenerala irakurtzeko ohitura barneratzea.

- e) Tajuzko hizkuntza erabiltzeak gizarte maila hobetzen duela jakineratzea.
- f) Hebraierarekiko *leialtasuna* lantzea, hizkuntza hobetu eta heda dadin.
- g) Jendeak jakin dezala, hizkuntza garbi eta zehatza erabiltzeak giza harremanak hobetu ez ezik, gizartearen *maila kulturala ere altxatu egiten duela*.
- h) Haurrei lagundu hebraieraren eredu eta formak ikas ditzaten, geruza historikoak bereizten irakatsiz.
- i) Esaera eta modismoak ikas ditzatela (Landau, 1970, 725. or.).

Badirudi, beraz, plangileek beren buruei exijitzen dietena nahi dutela besterengandik ere. Hau oso zaila da, noski, hebraieraren zailtasunak oztopo handia bait dira haur, ezikasi eta emigrante berrientzat.

Komunitatearen eta plangileen arteko desegokitasuna azken hauen ziurtasun linguistikoa zor zaio; hauek linguistikoki zuzentzat jotzen dutenak ez dauka zerikusirik herrikoitasunarekin. Gainera, eginbehar anitz dira eta akademiarren ihardutea nahiko eskasa da adinarengatik.

Eman diren aldaketak ez dira iritzi berriei jarraiki egin. Orain babesturik dagoen hizkuntza plangileek sortua da. Ondorioz, «hebraiera klasikoan ematen zen kontzeptu-sistema baztertuz, hurbilketa kontzeptual europarra nagusitu zaio Akademiari» (Rosen, 1969, 97. or.). Halaber, segitzen du Rosenek, «Plangilea forma gramatikal, arazo morfologiko, adizjokera... eta horrelako xehetasunetan murgiltzen da, gainerakoak ahaztuz» (ibid. 107. or.). Politika honek okerra badirudi ere, xehetasun-arazo horietan mugatzeak ez luke eraginik behar plangintzaren arrakastan. Rabin-en eritziz, oster, biek elkarren eragina behar dute (Rabin, 1971 b, 279. or.). Rabin-ek «xehetasun

arazoak» arazo linguistikotzat jotzen ditu, arazo semilinguistiko eta extralinguistikoetatik bereiziz. Hona proposatzen duen klasifikapena (Rabin, 1971 b):

## ARAZO LINGUISTIKOAK

### A.— Hiztegiarenak:

- 1.— Hiztegi-hedaketa
  - a) Erabaki sistematikoz (prozesu sortzailea)
  - b) Plangintza praktikoaz (hiztegi puntuz)
- 2.— Hiztegiaren estandarizaketa
  - a) Hiztegi teknikoarena
  - b) Hiztegi ezteknikoarena (neologismo eta arkaismoak)
  - c) Dialektoena.
- 3.— Soziosemantika: hiztegi-hedaketarako segitzen diren erizpideei dagokie. Besteak beste:
  - a) Kanpoko hitzen hebraieratzea.
  - b) Hizkuntza klasikoaren formak berritzea.
  - c) Alboko hizkuntzen formak mailegatzea.
  - d) Arruntkeria eta argot delakoaren onesgarritasuna.

### B.— Egituraren aldetik:

Fonologia, Morfologia eta Sintaxia.

### C.— Estiloari buruzkoak:

- 1.— Estilo europarra ala klasikoa.
- 2.— Idazkera arrunta ala «klasekoa».
- 3.— Bibliako eta jatorrizko formetan ala modernizatuetan irakurri behar?

## ARAZO SEMILINGUISTIKOAK

Planifikaturiko hizkuntz aldaketan dute garrantzirik handiena. Linguistek badute honetan zer esanik, baina ez di-

ra bakarrak, zenbait faktore soziologiko eta psikologiko ere bai bait da tartean. Alor honetan aurkitzen dira:

### A.— Idazkera:

- 1.— Idazkera-sistemaren aldaketa (hots, idazkera diakritikotik linealera).
- 2.— Idazkera-sistemaren zenbait ezaugarriren aldaketa (letra nagusien sarrera).
- 3.— Aldaketa paraortografikoak (tileta etab.).

### B.— Letreiaketa:

- 1.— Sistematizazioa eta banaketa
- 2.— Errazketa
- 3.— Fonetizazioa (hitz zaharretan batez ere)
- 4.— Hitzak elkarrengandik bereiztea

### C.— Ahoskera:

Fonemen zenbakia edo banaketa aldatzen ez dituzten *alofonoen* batasuna (hau da, arrazoi sozial edo errejionalengatik ahoskatze-ko dauden era ezberdinak banatzea)

### D.— Mintzaira:

- Erazko formen erabilketa.
- Hizkuntzaren tabuak.

## ARAZO EXTRALINGUISTIKOAK

Hizkuntza baten erabileran bertan azaltzen direnak. Hurbilketa ezberdinei jarraituz azter daitezke:

### A.— Horizontala:

lurraldeko aldaketari dagokio. Hau izan daiteke:

- 1.— Geografikoa.
- 2.— Komunitateartekoa (leku berean populazio nahasiak bizi direnean).

### B.— Bertikala:

erabilera sozialean gertatzen den aldaketa.

- 1.— Klase artekoa
- 2.— Hiri eta landen artekoa, nomaden eta tinkoen artekoa, etab.
- 3.— Zenbait hizkeratan (literarioan, mintzatuan, erlijiosoan etab.).

#### D.— Diakronikoa:

ikusmira hau aski radikala da. Aztertzen ditu:

- 1.— Hizkuntza «hilaren» berpiztea.
- 2.— Idatzirikoa mintzatu eta mintzaturikoa idazteko gaitasuna.
- 3.— Hizkuntza berriaren sorrera (Hebraiera israeldarrarena, adibidez)
- 4.— Zenbait hizkuntzari hiltzen uztea (Yiddish-aren kasua)

Arestian emaniko klasifikapena erreferentzi puntu gisa hartu behar da, ez egitarau zehatz bezala. Jakina, plangileek linguistikoa ez den hainbeste faktore kontutan hartuko balute, plangintzaren eraginkortasunari kalte egingo liokete. Baina hau galerazi edo neutraliza daiteke plangileak aldi berean plangintz prozesua eta honi dagozkion aldakiak erreparatzen baditu. Hau ez da praktikan gertatu, besteak beste, hebraieraren berpizteari hain sarritan ekin ondoren, indarrak nolabait agortu direlako (Fishman, 1974a, 9. or.), edo plangileen multzoa osatzen duten letragizon haziengandik beharrezko den etengabeko adimena espero ezin daitekeelako (Rabin, 1971a, 120. or.).

Ikusiriko interferentziei nola ekin dakiekeen ikusi dugu. Orain begirada bat botako diogu Joan Rubin-ek plangintzaren arrakasta ziurtatzeko ematen dituen *aholkuei*. Hauek prozesu osoan azaltzen diren elementuei zuzenduak daude (Rubin, 1971, 214. or.). Hona aholkuak:

#### 1.— Irakasleei eta haien monitoreei

- a) *Hizkuntza eta haren irakaspi-deen ezagupena*

— Irakatsi beharko duten (nahiz gai bezala nahiz tresna bezala) hizkeraren ezagupena  
— Irakaskuntz tekniken ezagupena

- b) *Gaia irakasteko duten motibazioa landu*  
— Hizkuntz aldaketaren funtzioaz jabetuz  
— Aldaketa bultzatu eta mantentzeko premiazko diren legeak ezagutuz  
— Jarrera positiboa agertuz, nola aldaketari buruz hala horretan dihardutenei buruz (ikasle eta irakasle)
- c) *Ahal den heinean hobetu*  
— Hizkuntza irakasteko teknikak  
— Hizkuntzaren ezagupena
- d) *Aipaturiko biak hobetzeko behar den beta nola-hala eskuratu*

#### 2.— Ikasleei

- a) *Hizkuntzaren ezagupena* (bai gai bezala bai bitarteko bezala)
- b) *Gaia ikasteko duten motibazioa landu*  
— Hizkuntz aldaketaren probetxua jakineraziz  
— Aldaketa bultzatu eta mantentzeko premiazko diren legeak ezagutuz.  
— Jarrera positiboa agertuz, nola aldaketari buruz hala horretan dihardutenei buruz.
- c) *Hizkuntza hobetzeko ahaleginak egin*: eskolan, ikasgelatik kanpo, lagunartean, familiar eta komunikabideen bitartez.
- d) *Horretarako behar den denbora nonbaitetik atera*
- e) *Populazio ezberdinetan diren ezagupen, motibazio eta aukera mailen ebaluazioa*. Hau nahitaezkoa da estrategia diferenteak programatzean.

### 3.— Gaiei buruz

Textuliburuak, azterketarako materiala, liburutegi-erraztasunak, idazlana egiteko jendea, eta dagoen materiala kontuan hartuz, dena prestatzeko behar den denborari adi-adi begiratuz.

### 4.— Eskolako organizazioaz

- a) Maila bakoitzean projektaturiko eta benetan emaniko programen arteko erlazioa.
- b) Ikasleek eskolan hizkuntza ikasketari eta beste plangintzaren helburuei emaniko denbora.
- c) Hezkuntzan erabiltzen diren dialektoak eta horien eragina.

### 5.— Metodologiaz

- a) Dialektoen eta hizkuntza batuaren arteko erlazioaren ezagupena, eta baita batetik bestera pasatzeak dakartzan arazoena ere.
- b) Hizkuntz irakaskuntzari buruzko planteamentu alternatiboen ezagupena.

### 6.— Feedbacke-erako erraztasunak

Besteak beste, inspektore, neurtzaile eta eritzi aztertzaileei dagokienean.

Errealitatean prozesua askoz sinpleagoa izaten da: Akademiako espezialistek alor jakin batetan hebraieraz lor daitekeen materiala prestatzen dute, eta gero material honek azterketa sakona jasaten du, «iturburu literario eta beste alorretan Akademiak lehendik hartutako erabakiei jarraituz» (Medan, 1969, 45. or.). Nolanahi ere, ebaluaketak dituzten mugak argitan jarri behar dira:

- Erabakien garrantzia kuantifikatzea zaila da.
- Ebaluaketa-teknikak maiz elkarren kontrakoak dira.
- Erizpide kuantifikagaitzak sartzeak problema ugari sortzen du.
- Gerta daiteke ebaluaketa-erizpide

unibertsalak eta bereziak bat ez etortzea.

— Aztertzaileak oker egon daitezke azterketa eta ebaluaketa eramateko behar diren urratsak hautatzean (Rubin, 1971, 217, or.).

Ikusten dugu, beraz, ebaluaketa egi-terakoan hizkuntz plangileek diruzten problemak sor daitezkeela plangileen beraien jarrera normatibotik, edo tresna zientifikoen desegokitasunetik edo bietatik batera. Dena den, gure hurrengo puntuak, hots, komunitatea eta plangileen arteko elkarreaginak, akats hauek isladatuko ditu.

### (3) ELKARRERAGINAK

Hauek bi ikuspuntutatik aztertuko ditugu:

#### A) Indibidualista (edo pribatua)

Teorian behintzat hizkuntz plangintzaren zenbait aspektu, adibidez hiztegi-sorketa eta batasuna, talde pribatuei utz dakieke. Hauen arteko lehiaketak sortuko lituzke hitz efiziente, ekonomiko eta doinugozaogoak, alferrikako konnotazioak bazterturik (Tauli, 1971 c, 75. or.).

Ikerketek azaltzen dute kazetari eta idazleek gobernuko bulegoak baino askoz eraginkorragoak direla hiztegia sortu eta hedatzeko (ikus Rabin, 1969, 31. or., eta Fischman, 1974 c, 26. or.). Hebraieraren berpizkundearen hasieran ere kolonietan ziren irakasleak izan ziren, beren itzulpen eta ikasliburuaren prestatetaren bidez, hebraierari bul-tzada polita eman ziotenak.

Hala ere, eta kontutan hartuz, esate baterako, eskolen bidez egin daitekeen lanak zenbait muga daukala —honi buruz aipa liteke adoleszentaroa dela hizkuntzan aldaketak egiteko egokiena; pubertaroan horretarako behar den kontzentrazioerik ez omen da—, erreallitate politikoak erakusten digu gobernuaren babesak mobilizatzen dituela bai talde pribatuak eta baita nolabaiteko gobernu-zuzendaritza ere.

B) **Publikoa:** itxura denez, ezinezkoa da gobernuak babesturiko politika aurrrera eramatea, talde edo klase berezien eragina kontutan hartu gabe. Izan ere, erreforma sakonak egiten dituen taldea ez da teknikari linguistena, irakasle, kazetari, idazle eta abarrek osaturiko taldea baizik. Azken hauek, hizkuntzarekiko lotura sendoa izateaz gain, ziur aski eguneroko jardunaren poderioz atxikimendu sentimentala hazi bait dute (Rabin, 1971 a, 118 or.). Aipatu beharra dago, halaber, badagoela berekiko hiztegia lantzen duen zenbait komunitate, bereziki armada israeldarra.

Talde hauen emaitzak ez ziren serioski hartu hasieran, baina 1953.ean, «Zientzia eta Hizkuntza Hebraieraren Goi Institutua» delakorako legea baieztatzeak zenbait aldaketa ekarri zuen. Inportanteena, «Hizkuntzaren Kontseilua» zeritzana «Hebraiera Hizkuntzaren Akademia» bihurtzea. Akademiaren rola zuzendaritzarena da, legearen 2. eta 10. artikuluek argi agertzen duten bezala. Hain zuzen, 2. artikulua dioenez, Akademiak «Hebraiera hizkuntzaren bilakaera *zuzendu* behar du»

Bestalde, 10.ak honela dio: «Gramatika, idazketa edo terminologiari buruz Akademiak hartutako erabakiak hezkuntza eta zientzia institutuetan, gobernuaren sailetan eta udaletako organuetan aplikatuko dira».

Laburtuz, Akademiak, hau da, hizkuntz plangileek eraturiko komunitateak, Estatuak onesten duenak, hizkuntza arloko aldaketak zuzentzeko eskua dauka.

Baina hizkuntzari emaniko norabidea, beste ohitura eta kode sozialekin gertatzen den era berean, zenbait faktoreren menpean dago: inizatiba pribatua, jende haundia eta propaganda bezalako faktoreen menpean hain zuzen. Hau dela eta, problemak azaltzen dira.

*Jabetzearen* edo kontzientziaren arazoa agertzen da, hizkuntz problemei irtenbide linguistiko hutsa eman nahi

zaienean, «ingurune soziala kontutan hartu gabe, gerta daitezkeen ondorioen ikerketa egin gabe» (Rubin & Jernudd, 1971, XV or.). Jeneralean esan genezake, nahiz publikoak egoera ondo ezagutu, gobernuak eta hauen agentziek egoera hau kontutan hartzen ez badute, ez dagoela ezer egiterik (Kornblueth & Aynor, 1974, 41. or.).

Beraz, hizkuntz plangileen ardura nahitaezkoa da, eta bi norabidetan joan behar du: plangileek komunitatearen *nahi linguistikoez* jabetu behar dute eta *komunitatearen jabetza* bera *gebitu* behar dute (batez ere eskaintzen zaien hizkuntz produktuei buruzkoa). Formalki bederen, plangileek bietan aritzeko gai izan beharko lukete. Honetan gobernu-propagandak eta erlazio publikoetako sailak ere badute zereginik.

Beste arazoa izaten da jendeak zenbait garrantzizko hitz, ortografiako eredu eta abar ez dituela erabili nahi izaten, edota ez dituela onartzen. Honen arrazoi nagusiak hauek dira: hitz ofizialen erabilerari ez zaiola daukan garrantzia eman eta, beste aldetik, eguneroko prentsan ez direla isladatu mota honetako arazoak. Argi dago, gainera, «jende gehienarentzat hebraiera mintzatzea nahiko dela eta ez direla arduratzen gramatikaz edo idazleek (letragizonek) erabiltzen duten hizkuntzaz» (Sechbach, 1974, 124. or.).

Eta nahiz goiko bi arazo horiek konpondu, beti izango dugu aurrean *adostasunaren arazoa*. Izan ere, hizkuntz arrunta aholkaturiko hitzek osatzen duten sistemaren baitan integratu nahi badute, plangileek aurrez hitzunen adostasuna beharko dute. Beraz, *autoritate eraginkorra* izango bada, *funtzionala* izan behar.

Funtzionaltasun hau bi iturburutatik etor daiteke, sentimentalismotik edo instrumentalismotik, lan honen hasieran ikusi dugun bezala; eta azken aldi honetan, itxura denez, *joera erabat instrumentalaren* aldekoa da, Palestinan lehendabiziko hebraiera-ikasleena ez bezala.

Bestela esan, aginte efektiboak erro sendoak behar ditu utilitarismoan. Plangileen inguruan dihardutenek sinestarazi behar diete hiztun arruntei, zenbait hizkuntz produktu barneratzeak ez diela kalterik egingo.

#### (4) LABURPENA

Dirudienez, komunitate jeneralaren eta plangile komunitatearen arteko el-karreraginak, teoriarik behintzat, ez du plangintza emankorrik sortu (Jernudd & Das Gupta, 206. or.).

Gakoa honetan datza: hizkuntz plangintzari dagokionean, badirela diferentzia ideologiko eta estrukturalak. Hau dela eta, plangileek daramaten burutapen linguistikoko normatiboa ez dator bat gizarte israeldarraren errealitatearekin.

Estrategia aldatzeko premia begien bistan dago. Eta mudantza honek *aldaketa txikien* bidez joan beharko luke. Bi komunitateek onartuko lukete printzipio hau. Honela zenbait eskabide alternatibo izango litzateke aldi berean, eta beren merezimenduen poderioz batzu besteen aurretik jartzen hasiko lirateke pixkanaka-pixkanaka.

Estrategia berri honek gero eta jarraitzaile gehiago baditu ere (ikus Meddan, 1969, 45. or., eta Fellman, 1974, 100. or.), oraindik ez zaio ondorio praktikorik nabaritu. Dena den, teoria mailan bi abantaila ditu:

1.— Ebaluaketa eta feed-backerako behar diren denbora eta dirua urritzen dituela. (Ez dugu ahaztu behar informazio-ebaluaketak derrigorrezkoak direla komunitate linguistikoen behar funtzionalak ezagutzeko).

2.— Ebaluaketa eta feed-back delakoa behar diren neurrian, hauen helburuak ere gutxiagotzen direla, komunitatea, hizkuntzari dagokionean, ez dela

monolitikoa onartuz gero. Hau dela eta, komunitate bakoitzari hobeto egokitzen zaion hizkera mota irakatsi behar zaio.

Zenbaiten eritziz, honen ondorioa litzateke disglosia edo poliglosia. Arrisku honi uko egin gabe («Disglosia mota guztiak antiekonomikoak dira, eta edozein politika linguistikoren helburua haien ezabaketa izan behar du»), (Tauli, 1974, 64. or.), esan beharra dago garbizaleen hizkuntz estrategiak beste honek baino disglosia arrisku-tsua sortarazten duela.

Garbizaleek, plangileek, hebraiera modernoaren antz gutxi duen hizkuntza sortu dute. Bestalde, iturburuen hizkuntza ere aldatu egin dute, zeukan kutsu klasikoa baztertuz.

Baina disglosiaren haziak ez dira bilatu behar bi hizkuntz estilo elkarren ondoan bizitzean, baizik eta hizkuntz estilo idealista eta funtzionalaren arteko diferentzia nabarmenetan, eta artifiziala ez den bakarra estilo funtzionala denez, horretan egongo da literatura eta mintzairaren arteko batasuna lortzeko bidea eta, hortaz, disglosiari erasotzeko modua (Tauli, 1974, 64. or.).

Rabin-en hitzetan, «Idazterakoan ere hebraiera israeldarraren formak erabiltzeko garaia heldu da, iturburuei dagozkien ereduak alde batetara utziz, gaur eguneko hizkuntz egituraren baitan ulertezinak bihurtu bait dira» (Rabin, 1970, 332. or.).

Idealista ez den estrategia, azkenik, nahiz derrigorrezko arauen aurka joan, ez da ez teoriarik ez praktikan finkotasunaren etsaia; aholku eman besterik ez du egiten lana eskaini nahi dutenei, «nahi» hau hizkera guztietan oinarritako identitate kulturaletik datorrelarik. Plangintza mota honek kontuan hartzen ditu bai planifikaturiko aldeak bai planifikatu ez direnak.



## BIBLIOGRAFIA

- ALLONI-FAINBERG, Y. (1974): «Official hebrew terms for parts of the car». In: J.A. Fishman: *Advances in language planning*, The Hague, Mouton.
- ALTOMA, S. J. (1974): «Language education in arab countries and role of the academies». In: J. A. Fishman: *Advances in language planning*, The Hague, Mouton.
- BAR-ADON, A. (1965): «The evolution of modern hebrew». In: J. L. Teller: *Acculturation and integration: a symposium by american, israeli and african experts*, New York, American Histadrut Cultural Exchange Institute.
- BLANC, H. (1957): «Hebrew in Israel: trends and problems». In: *Middle East Journal*, 11: 397-409.
- BLANC, H. (1973): «Israeli hebrew in perspective». In: *Ariel*, 32: 93-104.
- BLUMENFIELD, S. M. (1972): «Saga of hebrew reborn». In: *American Zionist*, urtarilla: 21-26.
- COMHAIRLE NA GAELIGE (1974): «Implementing a language policy». In: J. A. Fishman: *Advances in language planning*, The Hague, Mouton.
- FELLMAN, J. (1973): *The revival of a classical tongue: Eliezer ben Yehuda and the modern hebrew language*, The Hague, Mouton.
- FELLMAN, J. (1974): «The Academy of the Hebrew Language: its history, structure and function». In: *Linguistics*, 120: 95-104.
- FISHMAN, J. A. (1971): «The impact of nationalism on language planning». In: J. Rubin eta B. H. Jernudd: *Can language be planned?: Sociolinguistic theory and practice for developing nations*, Honolulu, University of Hawaii.
- FISHMAN, J. A. (1974a): «Introduction: The Sociology of Language in Israel». In: *Linguistics*, 120: 9-14.
- FISHMAN, J. A. (1974b): «Language modernization and planning in comparison with other types of national modernization and planning». In: *Advances in language planning*, The Hague, Mouton.
- FISHMAN, J. A. (1974c): «Language planning research: the state of the art». In: *Advances in language planning*, The Hague, Mouton.
- FISHMAN, J. A.; DAS GUPTA, J.; JERNUDD, B. H.; RUBIN, J. (1971): «Research outline for comparative studies of language planning». In: J. Rubin eta B. H. Jernudd: *Can language be planned?: Sociolinguistic theory and practice for developing nations*, Honolulu, Hawaii.
- FISHMAN, J. A.; FISHMAN, D. E. (1974): «Yiddish in Israel: a case study of efforts to revise a monocentric language policy». In: *Linguistics*, 120: 125-146.
- HAUGEN, E. (1974): «Instrumentalism in language planning». In: J. Rubin eta B. H. Jernudd: *Can language be planned?: Sociolinguistic theory and practice for developing nations*, Honolulu, Hawaii.
- HOFMAN, J. E. (1974): «The prediction of success in language planning: the case of chemists in Israel». In: *Linguistic*, 120: 39-66.
- HOFMAN, J. E.; FISHERMAN, H.: «Language shift and maintenance in Israel». In: *International Migration Review*, 204-226.
- JERNUDD, B. H.; DAS GUPTA, J. (1971): «Towards a theory of language planning». In: J. Rubin eta B. H. Jernudd: *Can language be planned?: Sociolinguistic theory and practice for developing nations*, Honolulu, University of Hawaii.
- KELMAN, H. C. (1971): «Language as an aid and barrier to involvement in the national system». In: J. Rubin eta B. H. Jernudd: *Can language be planned?: Sociolinguistic theory and practice for developing nations*, Honolulu, University of Hawaii.
- KORNBLUETH, I.; AYNOR, S. (1974): «A study of the longevity of hebrew slang». In: *Linguistic*, 120: 15-38.
- KUTSCHER, E. Y. (1957): «Role of modern hebrew in the development of jewish-israeli national consciousness». In: *Publications of the Modern Language Association of America*, 72, part. 2: 38-42.
- LANDAU, J. M. (1970): «Language study in Israel». In: T. A. Sebeok: *Current Trends in Linguistics*, 6 bol.: 721-45. The Hague, Mouton.
- MEDAN M. (1969): «The Academy of the Hebrew Language». In: *Ariel*, 25: 40-47.
- NEUSTUPNY, J. V. (1974): «Basic types of treatment of language problems». In: J. A. Fishman: *Advances in language planning*, The Hague, Mouton.
- ORNSTEIN, J. (1964): «Patterns of language planning in the new states». In: *World Politics*, 17: 40-49.
- RABIN, C. (1969): «The revival of the hebrew language». In: *Ariel*, 25: 24-34.
- RABIN, C. (1970): «Hebrew». In: T. A. Sebeok: *Current Trends in Linguistics*, 6 bol.: 304-346. The Hague, Mouton.
- RABIN, C. (1971a): «Spelling reform-Israel 1968». In: J. Rubin eta B. H. Jernudd: *Can*

- language be planned?: Sociolinguistic theory and practice for developing nations*, Honolulu, University of Hawaii.
- RABIN, C. (1971b): «A tentative classification of language planning aims». In: J. Rubin eta B. H. Jernudd: *Can language be planned?: Sociolinguistic theory and practice for developing nations*, Honolulu, University of Hawaii.
- RABIN, C.; SCHLESINGER, I. M. (1974): «The influence of different systems of hebrew orthography on reading efficiency». In: J. A. Fishman: *Advances in language planning*, The Hague, Mouton.
- RAY, P. S. (1963): *Language standardization: studies in prescriptive linguistics*, The Hague, Mouton.
- ROSEN, H. B. (1969): «Israel language polici, language teaching and linguistics», In: *Ariel*, 25: 92-111.
- RUBIN, J.; JERNUDD, B. H. (1971): *Can language be planned?: Sociolinguistic theory and practice for developing nations*, Honolulu, University of Hawaii.
- SEBEOK, T. A. (1970): *Current trends in linguistics. 6. bol.: Linguistics in South West Asia and North Africa*, The Hague, Mouton.
- SECKBACH, F. (1974): «Attitudes and opinions of israeli teachers and students about aspects of modern hebrew». In: *Linguistics*, 120: 105-124.
- TAULI, V. (1974): «The theory of language planning». In: J. A. Fishman: *Advances in language planning*, The Hague, Mouton.
- TENE, D. (1969): «Israeli hebrew». In: *Ariel*, 25: 48-63.

#### LA PLANIFICACION LINGUISTICA INSTITUCIONAL: EL CASO DE ISRAEL

Este análisis toma en cuenta dos comunidades:

1. La comunidad de los que utilizan la lengua (o comunidad general), cuyo comportamiento así como la ideología son de capital importancia a la hora de precisar el ambiente necesario para el desarrollo positivo de la lengua.

2. La comunidad de los planificadores. Para los predecesores de los planificadores de hoy en día y de la Academia, la lengua debía ser reflejo del hebreo ideal, es decir del hebreo bíblico. Hoy en día, sin embargo, los planificadores lingüísticos no pueden negarse a la cada vez más imperiosa necesidad de modernización. Por lo tanto, excluyendo el sistema conceptual del hebreo clásico, el enfoque conceptual europeo es el que ha prevalecido en la Academia.

Las relaciones e influencias mutuas entre am-

bas comunidades las analizaremos desde dos puntos de vista:

- a) Individualista (o privado). En la teoría, al menos, diversos aspectos de la planificación lingüística (creación y unificación del léxico, por ejemplo) pueden ser dejados en manos de entidades privadas.
- b) Público. En 1953, la aprobación de la ley del «Instituto Superior de la Lengua y Ciencia Hebreas», trajo consigo la transformación del «Consejo de la lengua» en «Academia de la Lengua Hebrea» con poderes de dirección en el ámbito de la lengua; de manera que las decisiones adoptadas por la Academia eran aplicadas a los Institutos de Educación y Ciencia, Departamentos del Gobierno y órganos de los ayuntamientos.

## LA PLANIFICATION LINGUISTIQUE INSTITUTIONNELLE: LE CAS D'ISRAEL

*Cet analyse tient compte de deux communautés.*

1. *La communauté de ceux qui utilisent la langue (ou communauté générale) dont le comportement ainsi que l'idéologie sont d'une importance capitale au moment de préciser l'atmosphère nécessaire au développement positif de la langue.*

2. *La communauté des planificateurs. Pour les prédécesseurs des planificateurs de nos jours et de l'Académie, la langue devait être le reflet de l'hébreu idéal, c'est à dire de l'hébreu Biblique. De nos jours, cependant, les planificateurs linguistiques ne peuvent pas fermer les yeux face au besoin de plus en plus pressant de modernisation. C'est ainsi que tout en excluant le système conceptuel de l'hébreu classique, le point de vue conceptuel européen est celui qui a prévalu au sein de l'Académie.*

*Les relations et les influences entre les deux communautés seront analysées depuis deux points de vue:*

- a) *Individualiste (ou privé). Les divers aspects de la planification linguistique (création et unification du lexique, par exemple, peuvent être laissés, du moins en théorie, entre les mains d'organismes privés.*
- b) *Public. En 1953, l'approbation de la loi de «l'Institut Supérieur de la Langue et des Sciences Hébraïques» entraîna la transformation du «Conseil de la Langue» en «l'Académie de la Langue hébraïque» avec des pouvoirs de direction dans le cadre de la langue; de telle façon que les décisions adoptées par l'Académie étaient appliquées aux instituts d'Education et de Science, Départements du Gouvernement et les diverses sections des mairies.*

## INSTITUTIONAL LANGUAGE PLANNING: THE CASE OF ISRAEL

This study takes into account two communities:

1) The community of those who use the language (or general community), whose behaviour and ideology are of capital importance when specifying the necessary environment for a positive development of the language.

2) The community of planners. According to the predecessors of the planners of today and of the Academy, the language should be the reflection of ideal Hebrew, that's to say, of Biblical Hebrew. Nowadays, however, language planners can't ignore the absolute necessity of modernizing it. Therefore, rejecting the conceptual system of classical Hebrew the European conceptual approach has prevailed in the Academy.

The influence and relations between the two

communities will be analyzed from two different points of view:

- a) Individualistic (or private). Theoretically at least, some aspects of the language planning (for instance, the working out and unification of the vocabulary) could be left to private entities.
- b) Public. In 1953, once the «Higher Institute of Hebrew language and science» was passed, the «Language Council» became the «Hebrew Academy of Language» with control power in the linguistic field, so that any decision the Academy took was applied to the Institutes of Education and Science, Government Departments and organs of the town councils.